BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA, URRUZUNOKO ZABORTEGI ZAHARREKO 1. ETA 2. EREMUETAKO ERANTZUKIZUN ZIBILEKO ETA INGURUMENEKO ASEGURUAK KONTRATATZEKO

KONTRATUAREN IRAUPENA	Urtebete
LIZITAZIO AURREKONTUA	17.768,60 €
KONTRATUAREN BALIO ZENBATETSIA	17.768,60 €
LOTEKA BANATZEA	Bai
PROZEDURA	Ireki sinplifikatu laburtua
ONESPEN ORGANOA	Mankomunitatearen Gobernu Batzordea

1. KONTRATUAREN XEDEA

Lehiaketa honen xedea Debabarrena Eskualdeko Mankomunitatearen aseguruak aseguru konpainiekin edo artekariekin kontratatzea izango da.

Aseguru horiek loteka daude banatuta:

- 1. LOTEA: Urruzunoko zabortegi zaharreko 1. eremuko erantzukizun zibileko eta ingurumeneko asegurua
- 2. LOTEA: Urruzunoko zabortegi zaharreko 2. eremuko erantzukizun zibileko eta ingurumeneko asegurua

2. KONTRATUAREN IRAUPENA

Kontratatuko den zerbitzu prestazioak urtebeteko epea hartuko du, indarrean diren kontratuak amaitzen direnetik hasita.

⇨ 1. LOTEA: Urruzunoko zabortegi zaharreko 1. eremuko erantzukizun zibila eta ingurumenekoa
Egungo kontratuaren amaiera: 2022ko abenduaren 31
⇨ 2. LOTEA: Urruzunoko zabortegi zaharreko 2. eremuko erantzukizun zibila eta ingurumenekoa
Egungo kontratuaren amaiera: 2023ko maiatzaren 12a

3. LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA ETA KONTRATUAREN BALIO ZENBATETSIA

Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua

Urtebeterako kontratu prestaziorako lizitazioaren oinarrizko aurrekontua (aseguru primaren zerga eta partzuergoa barne) honela xehaka daiteke:

- 1. LOTEA: 1. eremuko erantzukizun zibila eta ingurumenekoa: 10.330,58 euro urtean
- 2. LOTEA: 2. eremuko erantzukizun zibila eta ingurumenekoa: 7.438,02 euro urtean

Eskaintzen den prezioak lizitazioaren oinarrizko aurrekontutik behera egon beharko du, kontratua egikaritzetik ondorioztatzen diren zerga eta gastu guztiak jasoko dira, eta prezio eskaini horretan dagozkion zergak eta partzuergo gastuak sartuko dira.

Kontratuaren balio zenbatetsia

Kontratuaren balio zenbatetsia, 2 urteko prestaziorako (zergak eta partzuergoa barne), honakoa da:

- 1. LOTEA: 1. eremuko erantzukizun zibila eta ingurumenekoa: 10.330,58 euro
- 2. LOTEA: 2. eremuko erantzukizun zibila eta ingurumenekoa: 7.438,02 euro

4. NAHITAEZKO BALDINTZA TEKNIKOAK

Aurkezten diren eskaintzek bete behar dituzten nahitaezko zehaztapen teknikoak honakoak dira:

- 1. LOTEA: Urruzunoko 1. eremuko erantzukizun zibileko eta ingurumeneko asegurua: 2001az geroztik itxita dagoen zabortegi zaharreko jarduerak gauzatzearen ondorioz hirugarren pertsonei edo haien ondasunei eragindako balizko kalteengatiko kalte ordainen arriskua estaliko du, bai eta ingurumen mailan hondatua konpontzeko eta leheneratzeko kostuak ere, ezbeharrengatiko kalte ordainetarako 600.000 euroko mugarekin (ezbeharreko eta urteko), hain zuzen ere 2013ko urriaren 14ko ebazpenak, Ingurumeneko Sailburuordetzak emanak, itxi ondorengo kontrolerako baldintzak arautzen dituenak, ezartzen duenaren arabera.
  Aseguruaren estaldurak honakoak izango dira:

Interes aseguratua	Gehieneko frankizia ezbeharreko	Kalte ordainaren muga	
		Ezbeharreko	Aseguratutako urteko epeko
Gertaera kutsagarriengatiko erantzukizun zibila	25.000,00	600.000 €	600.000 €
Garbiketa gastuak eta larrialdi gastuak	25.000,00	600.000 €	600.000 €
Natura baliabideei eragindako kalteak	25.000,00	600.000 €	600.000 €
Defentsa gastuak	25.000,00	600.000 €	600.000 €

- 2. LOTEA. 2. eremuko erantzukizun zibileko eta ingurumeneko asegurua, milioi bat (1.000.000) euroko kalte ordain mugarekin, baimenaren gai den jarduera gauzatzeagatik hirugarren pertsonei edo haien ondasunei eragindako balizko kalteengatiko kalte ordainen arriskua estaltzeko, bai eta ingurumen mailan hondatua konpontzeko eta leheneratzeko kostuetarako ere, Ingurumen Baimen Integratuak ezartzen duenaren arabera.
  Aseguruaren estaldurak honakoak izango dira:

Interes aseguratua	Gehieneko frankizia ezbeharreko	Kalte ordainaren muga	
		Ezbeharreko	Aseguratutako urteko epeko
Gertaera kutsagarriengatiko erantzukizun zibila	25.000,00	1.000.000,00 €	1.000.000,00 €
Garbiketa gastuak eta larrialdi gastuak	25.000,00	1.000.000,00 €	1.000.000,00 €
Natura baliabideei eragindako kalteak	25.000,00	1.000.000,00 €	1.000.000,00 €
Defentsa gastuak	25.000,00	1.000.000,00 €	1.000.000,00 €

Poliza biek estaldura hauek izango dituzte:

1.- Instalazio barneko kalteengatiko ingurumen erantzukizuna

Aseguratzaileak asegurudunari ordainduko dizkio, dagokion erantzukizun mugaren arabera, baldintza partikularretan zerrendatzen diren leku aseguratuen barnean, gainean edo azpian gertatzen den ingurumenerako edozein kalteren ondoriozko zuzentze kostuak, baldin eta zuzentze kostu horiek lehen aldiz aseguru aldian, edo aplikatu beharreko estaldura-epearen ondorengo ezagutarazte aldian, eskatutako edo ezarritako administrazio neurrien indarrez ordaindu behar badira, ofizioz edo alderdi interesdunak eskatuta.

2.- Instalazioetatik kanpoko kalteengatiko ingurumen erantzukizuna

Aseguratzaileak asegurudunari ordainduko dizkio, dagokion erantzukizun mugaren arabera, baldintza partikularretan zerrendatzen diren leku aseguratuetatik sortzen den eta horietatik kanpo gertatzen den ingurumenerako edozein kalteren ondoriozko zuzentze kostuak, baldin eta zuzentze kostu horiek lehen aldiz aseguru aldian, edo aplikatu beharreko estaldura-epearen ondorengo ezagutarazte aldian, eskatutako edo ezarritako administrazio neurrien indarrez ordaindu behar badira, ofizioz edo alderdi interesdunak eskatuta.

3.- Kutsaduragatiko erantzukizun zibila

Aseguratzaileak asegurudunaren izenean ordainduko ditu, erantzukizun mugaren arabera, hirugarrenen erreklamazioen ondorioz asegurudunak legez ordaindu behar dituen zenbateko guztiak, arrazoiak honakoak direla:

- Gorputzeko kalteak.
- Kalte materialak.
- Immisioak, eragozpenak edo trabak, eta
- Ordezpen kostuak, nahi gabe sortuak eta gertatutako edozein kutsadura egoeraren ondoriozkoak; honakoak izan daitezke kutsadura egoerak:

  - Baldintza partikularretan zerrendatutako leku aseguratuen barnean, gainean edo azpian gertatuak, edo leku horietatik sortuak.
  - “Jarduera aseguratua” atalean deskribatutako lanengatikoak.

Betiere, asegurudunaren aurkako erreklamazioa aseguru aldian zehar edo jakinarazpen epe gehigarrian formulatu beharko da lehen aldiz, eta baldintza partikularretan ezarritako atzeraeraginezko dataren ondotik edo aseguru epean zehar hasitako kutsadura egoera bati buruzkoa izan beharko du.

4.- Prebentzio kostuak

Aseguratzaileak asegurudunari ordainduko dizkio, erantzukizun mugaren arabera, asegurudunak zentzuz eta behar bezala eragindako prebentzio kostuak.

Prebentzio kostu horien behar eta zenbatekoa aseguratzaileak berak izendatutako aditu batek baloratuko ditu, eta sekula ezingo dira egon kostu horien bitartez saihestu nahi izan diren kalteen zenbatekoaren gainetik. Ingurumenerako edo giza osasunerako mehatxu berehalako eta garrantzitsu baten kasuan, ez da aseguratzaileak izendatutako inolako adituren baloraziorik beharko.

5.- Lege gastuak

Aseguratzaileak asegurudunari ordainduko dizkio asegurudunak eragindako gorputzeko kalteen, kalte materialen, ingurumenerako kalteen, immisio, eragozpen edo traben ondorioz asegurudunak berak legez ordaindu behar dituen zenbateko guztiak, betiere asegurudunaren aurkako erreklamazioa polizak estaltzen badu.

Kontrako itunik ezean, polizak babestutako erreklamazio baten ondoriozko edozein prozedura judizial zibil, penal edo administratibotan, aseguratzaileak bere gain hartuko du, bere kontura, hirugarren kaltetuaren erreklamazioaren aurkako zuzendaritza juridikoa, eta/edo agintaritza arautzailea, jarduketa judizialetan eta estrajudizialetan aseguruduna defendatu eta ordezkatuko duten abokatu eta prokuradoreak izendatuz, baita erreklamazioa funtsik gabea denean ere. Era berean, aseguratzaileak bere gain hartuko du fidantza judizialak eta/edo bermeak eratzea eta mantentzea, hala zibilak, kautelazko neurriak hartzean, nola kriminalak, asegurudunaren balizko erantzukizun zibila edo behin-behineko askatasuna bermatzeko. Horretaz gain, bere gain hartuko du asegurudunari, erantzukizun zibila edo behin-behineko askatasuna bermatzearren, eskatzen zaizkion gastu judizialak ordaintzea ere, gastu horiek, zehapen pertsonala izan gabe, edozein prozedura kriminalen ondorioz sortuak direnean.

Horrez gain, erakunde juridikoak prozedura penaletan dituen lege gastuei eta fidantzei estaldura emango zaie.

Lege gastuei eta fidantzei aplika dakiekeen frankizia baldintza-agiri honetako baldintza partikularretan dago ezarrita.

Asegurudunak beharrezko laguntza eman beharko du defentsa horretarako, eta beharrezko ahalordeak eta laguntza pertsonala emateko konpromisoa hartuko du.

Prozedura judizialaren epaia edo emaitza dena dela, aseguratzaileak beretzat gordetzen du epai edo emaitza horren kontra bidezko izan daitezkeen lege helegiteak jartzeko erabakia, edo epai edo emaitza onartzekoa.

Aseguratzaileak errekurtsoa bidegabetzat jotzen badu, asegurudunari jakinaraziko dio, eta aseguruduna aske geratuko da errekurtsoa bere kontura jartzeko; eta errekurtsoak aurrera egiten badu, aseguratzaileak kostu judizialak eta abokatuaren eta prokuradorearen zerbitzu-sariak ordaindu beharko dizkio.

Asegurudunaren eta aseguratzailearen artean gatazkarik sortzen bada aseguratzaileak, ezbeharrean, asegurudunaren defentsaren aurkako interesak defendatu behar dituelako, aseguratzaileak horren berri emango dio asegurudunari, defentsarako beharrezkoak diren premiazko eginbideak egiteari kalterik egin gabe. Kasu horretan, asegurudunak aukeratu ahal izango du aseguratzaileak zuzendaritza juridikoari eustea edo bere defentsa beste pertsona baten esku lagatzea. Azken kasu horretan, aseguratzaileak bere gain hartu beharko ditu zuzendaritza juridiko horren gastuak, baldintza partikularretan lege gastuetarako adierazitako erantzukizun mugaraino.

Klausula honen ondorioetarako, ez da interes gatazkatzat hartuko aseguratzailea eta aseguruduna bat ez etortzea polizak kasuan kasuko erreklamazioari buruz ematen duen estaldurari dagokionez.

Asegurudunak abokatuak eta prokuradoreak izendatzen baditu aseguratzailearen baimenik gabe, lege gastuen kontzeptuetan aseguratzaileak bere gain hartuko duen gehieneko muga 6.000 eurokoa izango da.

Aseguratzailea ez da isunen edo bestelako diruzko zehapenen ordainketaz arduratuko, ezta horiek ez ordaintzearen ondorioez ere. Aseguratzaileak ez ditu inolaz ere asegurudunari ezartzen zaizkion isunak edo zehapenak fidantzatuko.

Asegurudunaren alde ezarritako fidantza galtzen bada epaiketan ez agertzeagatik edo beste edozein arrazoirengatik, asegurudunaren erantzukizun penalagatiko epai bat barne, edo epaileak erantzukizun penala ezartzen badu, edo azkenean erreklamazio osoa edo zati bat polizak estaltzen ez badu, orduan asegurudunak eta aseguru-hartzaileak fidantzaren zenbatekoa berehala itzuli beharko diote, solidarioki, aseguratzaileari.

5. ESLEIPEN IRIZPIDEAK

Puntuak formula bat aplikaturik esleitzen diren irizpideak.

- 1. lotea: Urruzunoko zabortegi zaharreko 1. eremuko erantzukizun zibileko eta ingurumeneko asegurua:

Eskaintza ekonomikoa

Proposamen ekonomikoa, 100,00 puntu arte.

Onartutako eskaintzetako eskaintza ekonomikoen puntuazioak kalkulatzeko, interpolazio lineala egingo da, P2 (beherapen maximoa, puntuazio maximoa) eta P1 (0ko beherapena, puntuazio minimoa) puntuek definitzen duten zuzenean, puntu horiek mugatzen duten segmentuaren barruan.

P1 eta P2 puntuak hauek dira:

P2 – Eskaintza merkeenari dagokiona (beherapen maximoa); puntuazio maximoa emango zaio, 100,00 puntukoa.

P1 – Lizitazio tipoari dagokiona; puntuazio minimoa emango zaio, formula honen bitartez kalkulatua:

Lizitazio tipoari dagokion puntuazio minimoa:

P1 = Pmin = 100,00 x (1-(3 x Bmax))

Horretan, Bmax = Beherapen maximoa

Beherapena (B_i) izango da lizitazioaren oinarrizko prezioaren eta eskainitako prezioaren$_i$ (BEZ barne) arteko aldea, emaitza hori lizitazioaren oinarrizko prezioarekin zatituta.

Pmin-en kalkulua negatiboa ateraz gero, Pmin = 0 joko da.

Aipatu den zuzena definitzeko, onartutako eskaintzak bakarrik hartuko dira kontuan.

- 2. lotea: Urruzunoko zabortegi zaharreko 2. eremuko erantzukizun zibileko eta ingurumeneko asegurua:

Eskaintza ekonomikoa

Proposamen ekonomikoa, 100,00 puntu arte.

Onartutako eskaintzetako eskaintza ekonomikoen puntuazioak kalkulatzeko, interpolazio lineala egingo da, P2 (beherapen maximoa, puntuazio maximoa) eta P1 (0ko beherapena, puntuazio minimoa) puntuek definitzen duten zuzenean, puntu horiek mugatzen duten segmentuaren barruan.

P1 eta P2 puntuak hauek dira:

P2 – Eskaintza merkeenari dagokiona (beherapen maximoa); puntuazio maximoa emango zaio, 100,00 puntukoa.

P1 – Lizitazio tipoari dagokiona; puntuazio minimoa emango zaio, formula honen bitartez kalkulatua:

Lizitazio tipoari dagokion puntuazio minimoa:

P1 = Pmin = 100,00 x (1-(3 x Bmax))

Horretan, Bmax = Beherapen maximoa

Beherapena (B_i) izango da lizitazioaren oinarrizko prezioaren eta eskainitako prezioaren$_i$ (BEZ barne) arteko aldea, emaitza hori lizitazioaren oinarrizko prezioarekin zatituta.

Pmin-en kalkulua negatiboa ateraz gero, Pmin = 0 joko da.

Aipatu den zuzena definitzeko, onartutako eskaintzak bakarrik hartuko dira kontuan.

Eskaintza bat neurriz kanpokoa edo ausarkeriazkoa dela adieraziko da, baldin eta beraren beherapen ehunekoak 10 puntu edo gehiagoz gainditzen badu onartutako eskaintza guztien beherapen ehunekoen batez besteko aritmetikoa. Adierazpen hori egiteko Kontratazio Organoaren erabakia beharko da, aurrez informazioa eskatu zaiela ustez eskaintza horretan parte hartu duten lizitatzaile guztiei, eta aholku teknikoa, berriz, dagokion zerbitzuari.

Beherapen ehunekoa honakoa izango da: proposamena$_i$ = 100 x B_i izango da, non $_i$-ren balioa 1etik n-ra doan, n dela guztira onartutako eskaintza kopurua.

6. BERDINKETA HAUSTEKO IRIZPIDEAK

Eskaintza biren edo gehiagoren artean berdinketa gertatzen denean, honela desegingo da berdinketa hori:
Enpresa bakoitzeko plantillan desgaitasunen bat duten edo gizarte bazterketako egoeran dauden langileen ehunekoak alderatuko dira, berdintasuna gertatuz gero lehentasuna emanez plantillan desgaitasuna duten langile finkoen kopuru handienari edo plantillan gizarte bazterketako egoeran dagoen pertsona kopuru handienari.
Berdinketa ez bada desegin, enpresako plantillan aldi baterako kontratu ehuneko txikiena duenari emango zaio lehentasuna.
Berdinketa ez bada desegin, enpresako plantillan emakume ehuneko handiena duenari emango zaio lehentasuna.
Eta, hala eta guztiz, berdinketa mantentzen bada aurreko irizpide guztien bitartez ezin izan delako desegin, zozketa bidez desegingo da.

7. KONTRATUA EGIKARITZEKO BALDINTZA BEREZIAK

Kontratuaren xedearen garapenerako, ingurumena errespetatzen duten metodologiak, prozesuak eta bitarteko materialak erabiliko dira.

8. INFORMAZIO OSAGARRIA

Formula aukeratzeko justifikazioa

Formulak, puntuak banatzeko, P1 eta P2 puntuen arteko interpolazio lineala egiten du; horretan, P1 lizitazio prezioarekin asimilatzen da, eta honakoa dagokio: P1 = 100 x (1-(3 x Beherapen maximoa)); eta P2, berriz, eskaintza merkeena da, hau da, beherapen handiena eskaintzen duena, eta horri 100 puntu esleitzen zaizkio. Eta tarteko eskaintzei puntu bi horien arteko interpolazio linealaz esleitzen zaizkie puntuak, abzisetan jarriz eskaintza bakoitzeko beherapen balioak, eta ordenatuetan, berriz, eskaintza bakoitzari esleitu beharreko puntuak.
Formula aukeratuak eskaintza baxuenari esleitzen dizkio kontzeptu horrengatik eslei daitezkeen puntu guztiak; eta lizitazio prezioari puntu kopurua esleitzeko, berriz, puntuazio maximoa (1-(3xbeherapen maximoa)) faktoreaz biderkatzen da, beherapen maximoa ehuneko gisa emanda.
Hori dela eta, lizitatzaileren batek lizitazio prezioan eskainiko balu hornidura, lortuko lituzkeen puntuak ahalegina egin eta lizitazio prezioa baino prezio baxuagoak eskaintzen dituztenak baino nabarmen gutxiago izango lirateke.
Eta, gainera, proposamen merkeena zenbat eta baxuagoa izan, hainbat eta baxuagoa izango da lizitazio prezioarekin berdintzen den eskaintza baten bidez lortutako puntuazioa, nabarmen urrunduz horrela puntuak alderantzizko proportzionaltasun arau baten arabera banatzeko irizpidetik; izan ere, eskaintza ekonomiko onena zenbait eta baxuagoa izan, hainbat eta nabarmenagoa izango da esleitu beharreko puntuak interpolatzen diren zuzenaren malda, eta horrela saritu egingo da prezio baxuagoa eskaintzen duenaren ahalegina. Erabiltzen den formularen beste ezaugarrietako bat zera da, zenbait lizitatzailek eskaintzen dituzten beherapen berdinen kasuan, formulak puntuazio berdinak esleitzen dizkiela.

Lizitazio prezioak kalkulatzeko metodoa

- 1. lotea: Urruzunoko zabortegi zaharreko 1. eremuko erantzukizun zibileko eta ingurumeneko asegurua:

Kostuen kalkulua egiteko, ondoren aipatzen diren kostuen banaketa eta partiden pisua hartu dira kontuan: zuzeneko langileen gastua % 40, zeharkako langileen kostua % 13, horniduren kostu osoa % 5, finantza gastua % 5, ibilgetuaren amortizazioa % 25, gastu orokorrak % 6 eta mozkin industriala % 6, hau da, gastu zuzenak guztirako kostuaren % 70, zeharkako gastuak % 18 beste gastu batzuk % 12.

Debabarrena Eskualdeko Mankomunitateko 1. loteko aseguruak kontratatzeko kostuen kalkulua								
Kostuen xehakapena kontzeptuka	Partaidetzaren % kostuetan				Partaidetzaren kostua eurotan			
	Zuzenak	Zeharkakoak	Beste gastu noizbehinkako batzuk		Zuzenak	Zeharkakoak	Beste gastu noizbehinkako batzuk	
Zuzeneko langileen gastua	0,55				5.681,82	0,00	0	0
Zeharkako langileen gastua		0,04			0,00	413,22	0	0
Hornidurak	0,1				1.033,06	0,00	0	0
Finantza gastua		0,02			0,00	206,61	0	0
Ibilgetuaren amortizazioa	0,1				1.033,06	0,00	0	0
Gastu orokorrak			0,13		0,00	0,00	1.342,98	0
Mozkin industriala				0,06	0	0	0	619,83
GUZTIRA	0,75	0,06	0,13	0,06	7.747,93	619,83	1.342,98	619,83
	1,00				10.330,58			

- 2. lotea: Urruzunoko zabortegi zaharreko 2. eremuko erantzukizun zibileko eta ingurumeneko asegurua:

Kostuen kalkulua egiteko, ondoren aipatzen diren kostuen banaketa eta partiden pisua hartu dira kontuan: zuzeneko langileen gastua % 40, zeharkako langileen kostua % 13, horniduren kostu osoa % 5, finantza-gastua % 5, ibilgetuaren amortizazioa % 25, gastu orokorrak % 6 eta mozkin industriala % 6, hau da, gastu zuzenak guztirako kostuaren % 70, zeharkako gastuak % 18 beste gastu batzuk % 12.

Debabarrena Eskualdeko Mankomunitateko 2. Loteko aseguruak kontratatzeko kostuen kalkulua								
Kostuen xehakapena kontzeptuka	Partaidetzaren % kostuetan				Partaidetzaren kostua eurotan			
	Zuzenak	Zeharkakoak	Beste gastu noizbehinkako batzuk		Zuzenak	Zeharkakoak	Beste gastu noizbehinkako batzuk	
Zuzeneko langileen gastua	0,55				4.090,91	0,00	0	0
Zeharkako langileen gastua		0,04			0,00	297,52	0	0
Hornidurak	0,1				743,80	0,00	0	0
Finantza gastua		0,02			0,00	148,76	0	0
Ibilgetuaren amortizazioa	0,1				743,80	0,00	0	0
Gastu orokorrak			0,13		0,00	0,00	966,94	0
Mozkin industriala				0,06	0	0	0	446,28
GUZTIRA	0,75	0,06	0,13	0,06	5.578,51	446,28	966,94	446,28
	1				7.438,02			